

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

**Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorren egiturazko xedapen-aldaketari, zein bide-sarearen, espazio libreen eta berdeguneen azpiko aparkaleku pribatuei baitagokie**

Hauxe erabaki zuen udalbatzak 2018ko uztailaren 20an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorren egiturazko xedapen-aldaketari, zein bide-sarearen, espazio libreen eta berdeguneen azpiko aparkaleku pribatuei baitagokie.

#### Erabaki-proposamena

Gasteizko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatzeko proiektua ikusi da, zein bide-sarearen, espazio libreen eta berdeguneen azpiko aparkaleku pribatuei baitagokie. Udaleko Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuari eskatu zitzaion proiektua egiteko, 2017ko maiatzaren 5eko probidentzia tarteko.

Aldaketa honek hauxe du xede: sistema orokorreko edo tokiko sistemako bide-sareen, espazio libreen eta berdeguneen azpiko aparkalekuak zehaztu eta mugatzea, eta pribatu kalifikazioa ematea, jabetza publikotik kendu ahal izateko, eta aparkalekuek hartutako eremuan kalifikazio gainjarria jartzea: Aurrekoa lurpean eta aparkaleku pribatua lurpean.

Aldaketa hau 2013ko azaroaren 29an onetsi zen plan orokorraren egiturazko aldaketa baten ondorioa da (2014ko abenduko 30eko ALHAOn argitaratua), zeinen bidez espazio libreen eta bide-sarearen erabilera globalen baldintza orokorrak eta partikularrak aldatu baitziren, eta espazio horien azpian aparkaleku pribatuak baimendu ziren, hirigintza aprobetxamendua ezarrita.

Lur azpia egungo gizarte beharren errealitatera hobeto egokitzen den moduan erabili eta kudeatzeko sistema arinagoak dituzten mekanismoak aurkitzeko beharrak justifikatu egiten du proposatutako aldaketa, eta orobat udalaren ondasunen kudeaketa eraginkortasun, ekonomia eta errentagarritasun printzipioei erantzuten dieten mekanismoak izateak.

Egitura aldaketa da, izan ere erabilera publiko eta pribatuen arteko mugari eragiten dio, hirigintza-eraikigarritasun aldatuz, eta horretaz gainera mugatu beharreko aparkaleku pribatu batzuk espazio libreen sistema orokorraren lurpean daude, neurri batean edo osorik.

2017ko maiatzaren 5eko probidentziaren bidez aldaketa hori landu, tramitatu eta onartzeko prozesuan jarraitu beharreko herritarren parte hartzeko programa onartu zen, eta alde aurreko kontsulta publikorako prozesua bideratu zen Udalaren iragarki-taulan eta web orrian –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 133, artikuluan arautua betez–, herritarrek hainbat arlori buruz zituzten iritziak jakiteko: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, arau hori onestea beharrezko eta egoki den, helburuak eta izan daitezkeen konponbide alternatiboak. Ezarritako epean ez zen ekarpenik jaso.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekainaren 9ko bilkuran onetsi zuen aldaketa proiektua. Udalbatzak 2017ko ekainaren 23ko bilkuran eman zion hasierako onespena aldaketari, alde

aurretik Hirigintza Batzordeak 2017ko ekainaren 19an ebatzi ondoren. 2017ko uztailaren 6an El Correo egunkarian argitaratu zen eta 2017ko uztailaren 14an, berriz, ALHAOn. Agiria bi hilabetez egon zen jendaurrean eta epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.

Gasteizko Udal Plangintzarako Aholku Kontseilua aldaketaren alde agertu zen 2017ko uztailaren 17an, eta herritarren partaidetzarako programan aurreikusitako azalpen-saio irekia egin zen. Udalerriko administrazio-batzarrei ez zitzaien hasierako onespina jakinarazi, aldaketak ez baitie horien lurraldeei eragiten.

Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez zenez, aldaketari behin-behineko onespina eman zitzaion 2017ko urriaren 27ko bilkuran, Hirigintza Batzordeak 2017ko urriaren 2an ebatzi ondoren, eta azaroaren 9an Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordera igorri zen, nahitaezko txostena egin zezan. 2018ko otsailaren 21eko bilkuran aldaketaren alde agertu zen batzordea.

Aipatutako bilkura horretan, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi zuenez, ezinezkoa zen plangintza behin betiko onestea, aldez aurretik Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren nahitaezko txosten loteslea izan gabe. Horrenbestez, berariaz eskatu zen txosten hori, eta 2018ko ekainaren 11n jaso da, proposatutako aldaketaren alde agertu delarik.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa honen proiektuan honakoak aipatzen dira: xedea, ekimena, beharraren zein egokieraren justifikazioa, aldaketaren lege-esparrua, izaera eta esparrua, proposamenaren deskribapena, indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, hirigintza estandarrak betetzearen justifikazioa, ingurumen-ebaluazioa, bidegarritasun ekonomiko eta finantzariora, iraunkortasun ekonomikoa, herritarren parte hartzea, eragin soziolinguistikoa eta azken xedapena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dute plangintza orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori formulatzeko gutxienezko dokumentazioa. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plangintza orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko arauak ezartzen dira.

Aipatutako 2/2006 Legearen 103. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza plan horiek aldatzea; 104. artikulua dioenez, hirigintza planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan mota berbera erabili beharko da, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

Udalbatzari dagokio antolamendu orokorrari hasierako onespina ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen nahiz bestelako tresnen udal tramitazioari amaiera ematen dion onspena ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak buruzko 57/2003 Legeak osatua — 123.1.i) artikuluan xedatutakoaren ildotik. Halaber, lege beraren 122.4 a) artikulua xedatzen duenez, udalbatzaren batzordeei dagokie Udalbatzak erabaki behar dituen gaiak aztertu, informatu edo kontsultatzea.

Lege beraren 123.2. artikuluan xedatzen denez, hirigintzaren alorreko legedian aurreikusitako plangintza-tresnen tramitazioan udalbatzak hartu beharreko erabakietarako, udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa beharko da.

Gasteizko Udaleko Udalbatzaren Araudi Organikoak 214. artikuluan xedatzen duenez, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena egin edo horretarako epea igaro ondoren emango dio behin betiko onspena Udalbatzak behin-behineko onspena jaso duen planari.

Proposatutako planteamenduarekin bat etorritik, dosierrean jasotako hirigintza-agirietan haren beharra eta egiteko egokiera justifikatuta daudelarik, aipatu diren arauak kontuan harturik, eta Gasteizko Udaleko Hirigintza Sailak 2017ko ekainaren 14an egindako txosten teknikoarekin bat, Toki Jaurbidearen Oinarriak buruzko 7/1985 Legeak — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak osatua — 122.4.a) artikuluan aitortzen dion

aginpidea baliaturik, eta Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariak hala proposaturik, Hirigintzako Irizpen Batzordeak hau aurkezten dio udalbatzari:

Erabakia

1. Behin betiko onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren egiturazko xedapen-aldaketa honi, zein bide-sarearen, espazio libreen eta berdeguneen azpiko aparkaleku pribatuei baitagokie. Hirigintza Saileko zerbitzu teknikoek idatzitako aldaketa honen xedea da sistema orokorreko edo tokiko sistemako espazio libre eta eremu berdeen azpiko aparkalekuak zehaztu eta mugatzea, eta pribatu kalifikazioa ematea, jabetza publikotik kendu ahal izateko, eta aparkalekuek hartutako eremuan kalifikazio gainjarria ezarriz: aurrekoa lurrean eta aparkaleku pribatua lurpean.

2. Erabaki hau eta aipatutako aldaketaren hirigintza arauak ALHAOn argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikulua xedatutakoaren ildotik.

3. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik.

Xedapen aldakuntza honen eduki osoa jendeaurrean izango da interneten: HAPOA azpiko aparkaleku pribatuak

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abuztuaren 13an


*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**


Aldatutako plangintza

PLAZA DE AMÁRICA / AMARICA ENPARANTZA



JARDINES DE LA CATEDRAL NUEVA / KATEDRAL BERRIKO LORATEGIAK




- |  |  |  |   |
|--|--|--|---|
|  ES-ZV/AP | ZONA VERDE CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO BERDEGUNEA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN     |  ES-LI/AP | ESPACIO LIBRE CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO ESPAZIO LIBREA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN |
|  ES-PU/AP | PARQUE URBANO CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO HIRI-PARKEA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN |  CO-U/AP  | RED VIARIA CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO BIDE-SAREA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN        |

JARDÍN EN EL BARRIO DEL PILAR / LORATEGIA EL PILAR AUZOAN




PLAZA DE JUAN DE AYALA / JUAN DE AYALA ENPARANTZA



- |  |   |  |  |
|--|---|--|--|
|  ES-ZV/AP | ZONA VERDE CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO<br>BERDEGUNEA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN     |  ES-LI/AP | ESPACIO LIBRE CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO<br>ESPASIO LIBREA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN |
|  ES-PU/AP | PARQUE URBANO CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO<br>HIRI-PARKEA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN |  CO-U/AP  | RED VIARIA CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO<br>BIDE-SAREA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN        |



PARQUE DE JUDIZMENDI / JUDIZMENDIKO PARKEA




PLAZA DE PEPE UBIS / PEPE UBIS ENPARANTZA




- |   |   |
|---|---|
| <p><b>ES-ZV/AP</b> ZONA VERDE CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO BERDEGUNEA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN</p> <p><b>ES-PU/AP</b> PARQUE URBANO CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO HIRI-PARKEA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN</p> | <p><b>ES-LI/AP</b> ESPACIO LIBRE CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO ESPAZIO LIBREA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN</p> <p><b>CO-U/AP</b> RED VIARIA CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO BIDE-SAREA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN</p> |
|---|---|

PLAZA ZALDIARAN / ZALDIARAN ENPARANTZA



PLAZA DE SANTA BÁRBARA / SANTA BARBARA ENPARANTZA



- |   |   |
|---|---|
| <p><b>ES-ZV/AP</b> ZONA VERDE CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO BERDEGUNEA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN</p> <p><b>ES-PU/AP</b> PARQUE URBANO CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO HIRI-PARKEA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN</p> | <p><b>ES-LI/AP</b> ESPACIO LIBRE CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO ESPAZIO LIBREA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN</p> <p><b>CO-U/AP</b> RED VIARIA CON APARC. PRIVADO EN SUBSUELO BIDE-SAREA AZPIKO APARKALEKU PRIBATUAREKIN</p> |
|---|---|